

BALIO PROPOSAMENA

LIN enpresa sortu dugun ikasleak, lehenengo batxilergoko bost ikasle gara eta gizartearekin konpromezu soziala dugu, horregatik produktu hau sortu dugu.

IDEIA

Sortu dugun ideia kaloriak, gatza eta azukrea neurtzen duen plater bat sortzea da. Janaria plateraren gainean jartzean, janariak duen informazioa bildu eta aztertuko du. Platerak jasoko duen informazio hau, app batera joango da eta han gordeko da. Bertatik informazioa ikusi, aztertu eta kontrolatu ahal izango dute.

Hainbat behar asetuko ditu: osasuna nahi duten pertsonen erreztasuna emango die, adineko pertsonen dietetan eta zahar etxetan laguntzeko, portzio osasuntsuak jan nahi duenari identifikatzen laguntzen dio...

Edozeinek erosi dezake baina gehiengoak, adineko pertsonak, kirolariak, osasun arazo eta gaixoeak, eskolako eta zahar etxeko jangeletakoak eta dieta egiten duten pertsonak izango dira.

NOBEDADEA

Gizartearekiko produktu berri bat da, oraindik merkatuan ez dagoena eta erabilgarria iruditzen zaiguna, beraz nobedadea da.

PRESTAZIOA

Plater honek sensore bat dauka non, elikagaiak identifikatzen ditu eta horrela gatza, kaloriak, azukrea, pisua eta tenperatura aztertzen ditu. Pantaila txiki batean bateria eta kaloria kantitatea agertuko dira. Ondoren, zuzenean APPan agertzen da informazioa. Bateriak aste bete iraungo du gutxi borabehera, eta kargatzeko aukera izango du.

PERTSONALIZAZIO-DISEINUA

Plater txuri batetik abiatuko gara, baina gure web gunetik pertsonalizatu ahal izango da; adibidez, kolorea jarri daiteke, baita marrazki bizidunak, plateraren tamaina... Ezaugarri hauen arabehera prezioa aldatu egin daiteke.

ERREZTASUNA-ERABILERRAZTASUNA

Plater interaktiboa erabiltzeko erreza izango da, piztu eta itzaltzeko botoi bati eman beharko zaio. Elikagaia plateran sartzean, momentuan emango dizkigu kaloria kantitatea eta bateria kopurua. Beste ezaugarri guztiak APPan azalduko dira.

ARRISKUA MURRIZTEA-SEGURTASUNA

Osasun arazoak dituztenei gatz edo azukre gehiegi jatea saihesten du. Jangeletako arduradunek dieta osasuntsu bat egiten ari direla ziurtatzea edo dieta egiten dutenei eta produktua erosten dutenek, gaizki jateko arriskua murrizten du.

ESKURAGARRITASUNA

Platerra eskuratzeko erreza izango da, gure web gunean salgai egongo da. Arrakasta handia edukitzean Amazonen erosteko aukera egongo da, herriko denda eta famazietan aurkituko duzue.